



## CULTURA

## Casalderrey eta Andreu Martín, euskaraz berriz ere

'Ez ezkondu, aita!' neskaita baten sentimenduez ari da 'Wendyk hegan ikasi zuen gaua' genero beltzekoa da

07.04.09 -

**DV.** Elkar argitaletxeak bi liburu argitaratu ditu gaztetxoentzako bilduma batean: Fina Casalderreyren *Ez ezkondu aita!* eta Andreu Martínen *Wendyk hegan ikasi zuen gaua*. Bata galizieraz idatzita zegoen jatorriz, eta bestea katalanez.

Hona *Ez ezkondu aita!* liburuaren abiapuntua: Elia ospitalean dago, apendizitis ebakuntza egin eta gero, baina hori ez da okerrrena: okerrrena da bere aitak orain andregai bat daukala, Berta, eta Eliak ezin duela jasan. Duela hiru urte hildako amaren oroitzapena datorkio, eta geroztik etxean izan duten bizimodua, bere gorabehera eta gazi-gozoekin. Baina bizi-tzak aurrera egingo du.

Istorio hunkigarri horren egilea Fina Casalderrey da, Pontevedran jaioa 1951n. Haur eta gazte literaturako puntako idazlea da Galizian, eta hainbat sari irabazitakoa, besteak beste Merlín, Edebé, Barco de Vapor eta Espainiako Sari Nazionala. Hizkuntza ugaritara daude itzulita bere lanak; eta hona hemen euskaratutako batzuk: *Txakurra daukagu etxean, eta zer?*, *Puf!*, *hau nazka!* eta *Bi malko Makinarengatik*.

*Ez ezkondu aita!* honen jatorrizko zienburua, berriz, hau da: *Prohibido casar, papá!* Eta euskarazko itzulpen lana Juan Martín Elexpuruk egin du.

### Estuasunak

Andreu Martínen *Wendyk hegan ikasi zuen gaua* oso bestelakoa da; genero beltzekoa, azken batean. Gaur egungo Bartzelonako gauean dago girotuta polizi nobela hau, eta hau da abiapuntua: sorgin batek esan zion Wendiry, hogeita hiru urte beteko zituen egunean hiko zela. Gaur du urtebetetzea, eta gau honetan era guztietako hondamendi eta kalamidadeak gertatuko zaizkio emakume *mosso d'esquadra* honi: hilketa bat iker-tzen hasi eta bi lapur-talderen erdian ikusiko du bere burua, tiro artean ibili beharko du, itsas hondora botako dute, metroak ia harrapatuko du...

Eleberri honen jatorrizko izenburua hau da: *La nit que Wendy va aprendre a volar*. Euskal itzulpena, berriz, Miren Artetxek egin du.

Andreu Martín (Bartzelona, 1949) polizi nobelen maisuetako bat da Katalunian, eta gazteentzako nobela beltzaren aitzindaria. Besteak beste, *Postariak beti dei-tzen du mila aldiz* publikatu du euskaraz.

Kritikatu izan du Europako hainbat herrialdetako giro kultuetan genero beltzarekiko dagoen mespretxua,



Andreu Martín oso idazle oparoa da. /EFE



### IDAZLEA

#### IDAZLEA

Ez ezkondu aita!

**Argitaletxea:** Elkar.

**Orrialdeak:** 175.

**Fina Casalderrey:** Pontevedra (1951).

Wendyk hegan ikasi zuen gaua

**Argitaletxea:** Elkar.

**Orrialdeak:** 171.

**Andreu Martín Farrero:** Bartzelona, 1949.

eta maisuen artean Raymond Chandler iparrame- rikarra nabarmendu du. Genero asko landu ditu, baita antzerkia eta telebista-gidoiak ere. Baita ere, zine-zuzendarientzat ere jardun izan da, gidoilari moduan.